

HAUTAKETA PROZESUA: OHIKO PROZESUA. 2022KO URRIAREN 20KO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREAREN EBAZPENAREN BIDEZ EGINDAKO DEIALDIA. (2022ko ABENDUAREN 22ko EHAA)

SARRERA MOTA: OROKORRA

DEIALDI ESPEZIFIKOA: GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA – GESTIO OROKORRA (Ohiko prozesua)

OPOSIZIO FASEAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK ARGITARATZEKO EPAIMAHANAREN ERABAKIA.

Deialdiaren zortzigarren eta hamabigarren oinarri orokorretan eta oinarri espezifikoaren 4. puntuan jasotakoarekin bat oposizio fasaeran ariketak zuzendu eta gero, aipatutako hautaketa prozesuaren epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA. – Oposizio-faseko gaitutuen behin-behineko zerrenda egitea, dagozkien kalifikazioen eta puntuazio-hurrenkeraren arabera.

BIGARRENA. – Oposizio fasea gaitutu dutenen behin-behineko zerrendak puntuazio-hurrenkeraren arabera, EHUko lan-eskaintzen atarian (<https://www.ehu.es/eu/web/azp/ohioko-prozesua-funtzionarioak>) argitaratzea, hautagaiek kontsulta ditzaten.

Zerrenda horretan ez daude, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, azterketa egin ezin izan zuten pertsonak, 8.5 OINARRIaren bosgarren paragrafoan jasota daudenak. Une honetan, azterketa egiteke dago, arauan aurreikusitako baldintzekin posible bada. Azterketa egiten bada, arau honetan aurreikusitakoaren babespean dauden pertsonak behin betiko zerrendan agertuko dira.

HIRUGARRENA. – Hamar lanegunen epea ematea, egoki leritzeketen erreklamazioak egin daitezten, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta. Halaber, epe horren barruan, gaitututako izangaiek lehiaketa-faseko merezimendu konputagarriak alegatu eta egiaztatu beharko dituzte, hala badagokio. Oposizio-aldiko behin-behineko emaitzei erreklamazioen bat egiten dietenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dituzte horiekin batera.

LAUGARRENA. – Dokumentazio hori horretarako gaitutako EHUko egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar izango da. (<https://egoitza.ehu.es/eu/registroelectronico>) [AZPkoen 2022ko LEPa. Dokumentazioa aurkeztea](#) prozedura aukeratuz. Horretarako, hautetako ziurtagiritako bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluen Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoen eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre.

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Alegazio-formularioa eta, hala badagokio, merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa posta-bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHUko gerenteari zuzendu beharko diote eskaria eta 10.2 oinarrian adierazitako helbidera bidali, eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.).

Leioan,

Epaimahaiko idazkaria